


# 1. GAIA: ZER DA SOZIOLOGIA

## ● ZER DA SOZIOLOGIA

- Soziologia gizarte aztertzen duen zientzia da, gizarte bizitza ulertu eta esplikatzen duen zientzia. , Soziologia ez da gizarte-gai baten edo bestearen inguruko datuak biltzea. Soziologia gertakari-zerrenda bat eta zifra batzuk baino askoz ere gehiago da.
- Soziologia, batez ere, kontzientzia-hartze bat da, gizarte-fenomenoak modu kritikoan pentsatzeko eta ulertzeko modu bat.
- Munduan gizarte desberdin asko daude, eta gizarte bakoitzean modu desberdinetan bizitzen dira. Gizarte desberdinek gure bizitza baldintzatzen dute



- Gizarte guztietan, taldeka antolatzen gara. Talde eta erakundeetan antolatuta daude
  - Familia
  - Erlijioa
  - Hezkuntza sistema
  - Botere politikoa
  - Lagunak...
- Gizakia animalia soziala da, amankomuneko bizitza gehien garatu duena. Animaliek, instintuaren arabera eratzen dira.

**Soziologoek giza elkartea eta gizarte portaera aztertzen dituzte, modu zientifiko batean, pertsonen osatutako taldeen ikerlanaren bitartez. Talde hauen barruan sartzen dira familiak, tribuak, komunitate eta gobernuak, eta baita beste gizarte antolakunde asko ere, hala nola, erlijiosoak, politikoak, negozioetakoak etabar. Soziologoek taldeen portaera eta elkarrekintza aztertzen dituzte: hauen jatorria lekutu eta beren garapena jarraitzen dute, eta taldeetako ekintzen eragina aztertzen dute kide gizabanakoengan. Taldeen portaerak **dinamikoak** dira, beti ari dira aldatzen.**

- ZERTARAKO ERABILGARRIA DA SOZIOLOGIA?

Soziologiak fenomeno sozialak ulertzen laguntzen digu. Gainera, munduan beste gizarte eta kulturen berri izatea ohartarazten digu. Gizarteek bere burua hobeto ezagutu dezaten ahalbideratzen du.

Soziologia baliagarria zaigu, beraz, hezkuntza hobeto ulertu ahal izateko. Izan ere, soziologiak erakusten digu hezkuntza azken batean fenomeno sozial bat dela, historian zehar eraiki eta berreraiki dena, gizarteko gainerako instituzioekin harremanetan, eta talde sozial ezberdinen interesen arabera.

- GIZARTE ZIENTZIAREN IKUSPEGITIK

Gizarteak modu erabakigarrian eragiten du gizakiarengan.


- Animaliak **instintua** gidatuta bizi (indibiduo guztiak jarrera berdina).
- Gizakiak **gizartea** gidatuta bizi (aniztasun ugari), instintuaren garrantzia ezeztu gabe. Eremu sozialaren, kulturaren emaitza.
- Talde guztietan, naiz eta arau sozialetatik ihes egin (arau berriak sortu).
- Nola? Jantzeko eran, bizieran, pentsaeran, arau eta limiteak jartzean...)
- **Psikologia eta soziologia** galdera berdina galdetzen dute? noraino gara independenteak?

- FENOMENO SOZIALA

- Fenomeno soziala gu jaio aurretik existitu egiten da eta hil ondoren existituko da ere. Fenomeno sozialak ezin dira indibidualki aldatu oso handia baita. Hala ere, pertsonak eraikitzen dituzte, baina ondoren instituzionalizatu eta gogortu egiten da. Horregatik, ezin da indibidualki aldatu. Bestetik, presio boterea dauka bere izaera inposatzeko, arauen kontra joatean konturatzen gara inposaketaz soilik.
- **Hezkuntza sistema** ezaugarri guztiak jasotzen ditu, beraz, fenomeno sozial bat da eta soziologiatik aztertu egin daiteke.

- HEZKUNTZA FENOMENO SOZIALA

- Hezkuntza gertaera eta fenomeno sozial bat da. Ikasten duguna ikasteko modua, sozialki baldintzaturik daude erabat; edukiak, metodoak... Gizarteak hezkuntza baldintzatu egiten du; gizarte mota, kulturalak, familia, baina hezkuntzak gizartearen ere baldintzatzen du; ezagutzaren balioa, zientziaren ekarpena...
- Hezkuntza gizartearen oinarria da eta honek gizartearen ere eratu du. Pertsonak hezkuntza-prozesuetan gizarteratzen ditu; gizartearen nola funtzionatzen duten irakatsi egiten dute, gizartearen arauak/ohiturak/balioak/pentsaerak berenganatzen lagutzen du.
- GIZARTEAREN ARABERA HEZKUNTZA SISTEMA MODU BATEKO EDO BESTEKOA IZANGO DA.
- 
- Hezkuntza aztertzeko ikuspegi ohikoak, pedagogia, didaktika eta psikologia dira, hala ere, soziologia beharrezkoa da.



## BEGIRADA SOZIOLOGIKOA

- **Begirada soziologikoa** beharrezkoa da hezkuntzan, hezkuntza hobeto ulertzeko.
- Historian nola hezkuntza sortu, berriro eta eraldatu den antzemateko
- Beste instituzioekiko harremanak ulertzeko. talde sozial ezberdinen interesak bideratua. zergatik aldatu da hezkuntza sistema? edo zergatik mantendu erlijioa hezkuntza sisteman?
- Boterea, ideologia desberdintasun sozialak, ekonomia, genero desberdintasunak... kontuan hartzeko.

- BEGIRADA SOZIOLOGIKOA

- Imaginazio soziologikoa: **Charles Wright Millsek** (1916-1962) hainbat liburu idatzi zituen, eta haietan zalantzan jartzen zituen gutako ia edonork ziurtzat ematen dituen sinesmenetako asko Millsen ikuspegitik, soziologia ez da bizitzarekin zerikusirik gutxi duen eginkizun alferrekoa. Aldiz, haren ustez, soziologia gure bizitzetako tranpetatik alde egiteko modu bat da, ikusarazten baitigu gizartearen (eta ez gure maniak edo akatsak) gure arazo askoren erantzule dela. **Helburua**, gertaera eta arazo indibidualak askotan kolektiboak edo publikoak direla ikusi. C. Wright Mills, **indar sozialen garrantziaz** ohartu zen eta Gauza partikularretan **orokortasuna** ikusi zuen. (Adb, Kafea)

### 1. Gauza zehatzetan orokortasuna bilatu:

- Adibide espezifikoetan aspektu orokorrak ikusi
- Logika sozialak identifikatu ( eraginak, ereduak...)
- Ez dago ezer erabat indibiduala gizartean.

### 2. Begirada soziologikoa piztu daiteke:

- Ikasten ahal da soziologikoki pentsatzen, errealitatea hobe ulertzeko eta erabilgarria da edozein arlo sozialetan lan egiteko.

### 3. Nola pentsatu soziologikoki?

- Soziologikoki pentsatzeko, gure **egoera pertsonaletik** aldendu behar gara eta ondoren errealitatea interpretatu, gainera testuinguru zabalago batetik begiratu behar dugu, ohartarazteko beste **errealitate desberdinak daudela** gizartean. Bestetik, guretzat ebidenea dena baino **areago ikusi** behar da, hau da, zergatik niretzeko gauza batzuk naturalak diren, (normala) eta beste batzuentzako ez. **Begirada berri** bat garatu behar da, soziologiaren arlotik aztertu. Egoera **ezjakintasun** bezala begiratu behar duzu, ezer ez dakizun bezala, errutina **ezagunetatik urrundu** behar da eta **dena zalantzan** jarri behar da.

Zer da normaltasuna?

Normaltasuna marko bat da. Gizarte bakoitzarentzat normaltasuna desberdina da. Zalantzan jartzen ez ditugun jarrerak normala bezala hartzen ditugu.

Adb; normaltzat hartzen ditugu gure gizartean, ama izateko desioa, ikasketen hautaketak...

### ● KATEGORIAK SOZIALAK

- Katgoria sozialak tresna bat da begirada soziologikoa aplikatzeko
- Taldeak sortzean datza, gizartean multzoak egitea.

- ★ Sexua
- ★ Ikasketa maila
- ★ Erlijioa

- **BEGIRADA ARRUNTZA GAINDITU**

- **Begirada arruntaren** ikuspegitik, pertsonen egoerak **kontu pertsonal** bat dela uste dugu, erabakia edo **arazo indiiduala**.
- **Begirada soziologikoak aldiz**, arazo edo egoerak jatorri eta faktore sozialak dute eta zerikusia dauka baldintza eta joera orokorrekin.

- **ERAGIN SOZIALAK BILATU**

- Gure bizitzak testuinguru sozial batengatik eraikitzen dugu eta **testuinguru sozialak** baldintzatzen gaitu, baina ez erabat; norberaren banakotasuna eta berezitasuna ere eta norberaren ardurak baldintzatzen gaitu.
- Fenomeno sozialak **ez dira ausazko** gertera, ez dira bapatean ematen.

- **ZER BILATZEN DU BEGIRADA SOZIOLOGIKOAK?**

- **Kolektiboa eta gizabanakoak**

- Nola eragiten gaitu kolektiboak, nola eragiten diogu guk kolektiboari, zertan guk determinatzen dugu gure burua?

- **Gizabanakoen eta taldeen harremanen egitura**

**Hezkuntzari dagokionez, begirada soziologikoa beharrezkoa da:**

Antza erabaki eta egoera pertsonalak direnak, pautak sozialak direla konturatzeko

Ezin ulertu hezkuntza bere testuinguru sozialetik kanpo.  
Hezkuntza aldatzeko, gizarterako beste gauzak ere aldatu behar.

Hezkuntza sistema kritikoki aztertzeko


Soziologia baliagarria zaigu, beraz, hezkuntza hobeto ulertu ahal izateko. Izan ere, soziologiak erakusten digu hezkuntza azken batean fenomeno sozial bat dela, historian zehar eraiki eta berreraiki dena, gizarterako instituzioekin harremanetan, eta talde sozial ezberdinen interesen arabera.

- NOLA IRUDIKATU GIZARTEA?

→ Gizartearen irudi estatikoa eta egozentrikoa

- Harremanik ez, integrazioerik ez
- Nia= erdian/gizartea kanpoan
- Arlo txikiak, autonomoak

→ Gizartearen kanpoan dagoena



→ Gizartea harremanak dira

→ **Ez dago gizarterik gizabanakorik gabe**

- Pertsonok gizartea egin eta eragiten dugu, gizartea, zerbait bizia, nahasia da harremanetan oinarriturik. Arlo ugari ditu ( funtzioak, instituzioak, erakundeak...) eta gizartea antolatzeke modu ugari daude.

→ **Gizartetik kanpo ez dago gizabanakorik**

- Gizakiak izateko besteekin elkarrekintzan egon behar dugu halabeaharrez


### **BIOLOGIKOA- PSIKOLOGIKOA + SOZIALA**

→ Gizartearen ikuspegi dinamikoa, harremanetan oinarrituta eta zentzurik gabekoa da

## ● HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

Hezkuntza fenomeno sozial kolektiboa da. Ez ditu soilik edukiak eta trebeziak transmititzen. Eredu kulturalak, bizitzaren interpretazioa...Hezkuntza-gizarte harremanak kritikoki aztertzen jakin.Hezkuntzaren funtzioa gizartean. Hezkuntza eta aldaketa soziala.

Gráfico 1. Ranking de profesiones parentales con menor y mayor porcentaje de hijos/as con título universitario



Impacto del nivel educativo de los progenitores en la pobreza de los hijos




Gráfico 2. Ranking de profesiones que más se heredan de padres/madres a hijos/as



### → MERITOKRAZIA:

- ✓ 1958an Michael Young-ek sortutako **neologismoa**.
- ✓ **Aristokrazian**: gizartean duzun lekua abizenak aukeratu.
- ✓ **Meritokrazia**: antolakuntza soziopolitikoak non gaitasun, meritu eta esfortzu indibidualak modu garden batean sarituak izan, eta gizartean gizabanakoaren garapena ahalbideratu.
- ✓ **Abiapuntu sozioekonomikoa** ez da guztiontzat berdina!!!!
- ✓ Hezkuntzak gehien baloratzen dituen gaitasunetara egokitu behar, klase soziala, jatorri etnikoa, genero desorekak...

- HEZKUNTZA SISTEMAK AUKERA BERDINTASUNA BERMATZEN AL DU?

- “**Hezkuntza** da belaunaldi helduek gizarte-bizitzarako beharrezkoa den heldutasun-maila oraindik lortu ez dutenengan duten eragina. Helburutzat dauka umearengan piztu eta garatzea halako egoera fisiko, intelektual eta moral batzuk, umeari eskatzen dizkietenak bai gizarte politikoak bere osotasunean eta bai ingurune espezifikoak, zeinean integratuko baita”

- GIZARTEA ETA KULTURA

→ Giartea: Giza talde bat, erlatiboki independentea, iraunkorra, toki batean kokatua, kultura bat partekatzen duena eta lotura gehienak talde horren barruan dauzka

→ Kultura: Bi esanahi nagusi:

- Zientzia, arte letren etb. jakite-maila. Adb. Kultura handiko pertsona da.

- **Gizarte-talde baten arau sozialen sistema (ohiturak, tradizioak, balioak, arauak, instituzioak).** Antropologia / soziologia erabilitakoa.

Ez da ohitura eta tradizio pilaketa bat bakarrik: portaera sistema antolatua bat da.


→ Normatiboa da:

- Portaera arauak ezartzen ditu, jarraibideak eman, normaltasuna eraiki eta bizitza erraztu egiten du

→ Arau estatistikoa: existitzen denaren neurrian

→ Arau kulturala: Existitzea espero dena eta gizartearen inguruko espektatibak

→ Gizarte baten interpretazioa, errotua. **Arau eta balioen sistema antolatua da:** normalean uste eta espero diren sentitzeko eta jokatzeko erak. Giza komunitate batean ezagunak, partekatuak, eta normalean jarraitzen direnak.



## ● KULTURAREN ELEMENTUAK

### 1. OHITURAK

- Gure bizimodu kolektiboan arazoak aurkitzen ditugu edonon, hala ere gizakiek probatu dituzte era guztiak arazoei aurrerantz egiteko. Gizarte ezberdinek era askotako arau bidegarriak aurkitu dituzte; adibidez: aulkian eserita jatea... **Proba eta hutsegiteren** bidez, egiazko ezbehar edo eragin ezezagun bati esker, talde bat posibilitate hauetakoren batera heltzen da, **errepikatzen** du eta premia berezi bat asetzeko ohizko era gisa onartzen du. Gero ondoko **belaunaldiei pasatzen** zaie eta **ohitura** bilakatzen da.

Talde batek gauzak egiteko jarraitzen dituen usadiozko era arruntak dira.

- Belaunaldi berriek ohiturak ikasi eta barneratzen dituzte, horrela irakasten zaielako, baina batez ere **behaketaren** bidez eta inguratzen dituen bizitzan partaide izanez. Ohiturak kolektiboak dira eta hauek apurtu egin daitezke. Gizarte bakoitzak gauzak erakutsi diguten moduan egin behar direla ikasi dugunez, zaila egiten zaigu ohartzea beste leku batzuetan edo **bestelako moduak** daudela gauzak egiterako orduan.
- Oihitura batzuk garrantzitsuagoak dira besteak baino, bi ohitura mota bereizten ditugu: Alde batetik, gizartearengan eta portera landuaren eskabidez jarraitu beharrekoak eta bestetik, taldearen ongizaterako nahitaez jarraitu beharrekoak. Oihitura batzuei lotzen dizkiogun ongiaren eta gaizkiaren ideia hauei **tradizioak** deitzen diogu.

### 2. TRADIZIOAK

- Ohiturak tradizioak baino sendagoak dira, Ohitura batzuei lotzen dizkiegun ongiaren eta gaizkiaren ideia hauei tradizio deitzen diogu. Taldeko kideek ia beti uste dute sendoa daukatela tradizioak haustea ez beharra ekarriko duela beren gainera. Tradizioak jarraitzeko eta betetzeko premia handiagoa dago eta hauetariko batzuk kausa-ondorio lotura jatorretan oinarritzen dira.
- Tradizioak ez dira asmatutako ideiak, normalean taldearen sinesmenetan dute beren jatorria. (Mitoak, erlijioak, kontakizunak). Tradizioak hasieran, beraz, taldearen ongizatea bilatzen zuten sineskera praktikoak ziren.
- Tradizioek, bere burua balioetsi eta betikotu egiten dute. Gaur sakratu bihurtzen dira, eta haustea barkaezina da. Gizarte guztiek zigortzen dituzte beren tradizioak hausten dituztenak. Tradizioak asimilatu behar dira, hau da, gauza bat osoki ikaste eta onartzea gure erantzunen parte inkontziente eta automatiko bihurtzeraino.
- Tradizioek emozionalki funtzionatzen dute eta hauen balio praktikoa galdu dezakete eta onarpena galdu.

### **3. INSTITUZIOAK**

- Instituzioa, balio eta prozedura orokor batzuk adierazten dituzten eta gizartearen zenbait premia oinarrizko betetzen gizarte harremanen sistema antolatu bat da. Honek funtzio soziala betetzen du.
- Oinarrizko bost instituzio egoten dira: Familia, erlijioa, gobernu, hezkuntza eta ekonomikoki aktibitatearen antolakuntza. Instituzioak gizarte bateko araurik formal eta premiazkoenen artean aurkitzen dira. Gauza hauek barne hartzen ditu:
  - oso uniformitate handia lortu duen portaera sail bat da
  - Tradizio, jarrera eta balio sail bat da
  - Tradizio, erritual, zeremonia, sinbolo, jantzi eta beste hainbat osagarritzko multzoa da.

### **4. LEGEAK**

- Legeak elkarbizitza antlatzeko arauen sistema da dira. Legeak tradizioak indartzeko balio du eta legetara makurtzen ez direnei zigorra, gartzela edo erio zigorra ezartzen zaie.
- Oihitura/tradizio batzuetan oinarriturik adierazpen kodifikatu gisa ikuspegi funtzionalista da, Ohitura eta tradizioak normatiboak dira, baina asotan kodeak, zigorrak eta sariak behar dira hauek bermatzeko.
- Legeak zigorrak finkatzen ditu eta aldakorrak dira, zilegitasun agadlu edota adostasunagatik ere.
- Edozein gizarte konplexutan legeak tradizioak ezartzen ditu eta, gainera, gizarte sistema babesten eta zaintzen du, eta hemen beti daude noski batzuk besteek baino pribilegio gehiago dauzkatenak.
- Botere harremanekin loturik daude; elkarbiiztza kudeatu eta erraztu egiten dute, baina ordena soziala mantentzen dute.

### **5. BALIOAK**

- Balioak, ideiak dira argitzeko ea esperientziak garrantzitsuak diren ala ez. Balioak gidatzen dituzte pertsonen burubideak eta portaerak. Gizarte bakoitzean balio batzuk estimatuagoak dira beste batzuk baino; lehiakortasuna, elkartasuna, leialtasuna...
- Gizarte xume bateko kideak normalean bat datoz balio multzo baten gainean, gizarte konplexuek, aldiz, balio sistema kontrajarriak garatzen dituzte. Balioei buruzko desakordioak etengabeak dira giartze konplexuetan, eta balioak aldatu egiten dira aldizka; ezkongaialdiko ohiturak, famili bizitzeko arauak...
- Ez dira guztiz indibidualak, ez norberak asmatuak. Beti lotuak daude gizarte kultura elementuekin eta haietan oinarrituta daude.

## ● **GIZARTE MODERNOETAN**

Gizarte moderno guztiek dauzkate konplexu batzuk partekatzen dituzten pertsona taldeak, gizarte horretako gainontzekoek partekatzen ez dituztenak.

### **1. AZPIKULTURA**

- Gizarte baten talde batzuek partekatzen dituzten kultur ezaugarrien sistemak dira, gainontzekoek partekatzen ez dituztenak.
- Azpikultura bakoitzak dauka bere hiztegi pribatua, arrotzen aurka mundu pribatu bat zainzteko balio diona.
- Hauek bezalako arau multzoak, gizartearen kultura orokorrarekin elkarlotzen direnak eta, halaere, hartatik bereizten direnak, azpikultura izenez ezagutzen dira. Azpikulturek barne hartzen dituzte azpikultura okupazionalak, erlijiosoak, nazionalak, lurraldekoak, adin, sexu...
- Azpikulturak garrantzitsuak dira, gizarte komplezu bakoitzak ez baitu edukitzen kultura bakarra eta uniformeak.

### **2. KONTRAKULTURA**

- Kultura dominatzailearekin kontrajarrera aktiboan dauden azpikulturei kontrakultura deritze. Kontrakultura batek kultura dominatzailearen arauetako batzuk baztertzen dituela, baina ez guztiak.
- Kontrakulturek gizarte aldaketa asko sartzen dituzte.